

Euskara eta askatasuna

El Diario Vasco, 1988-03-27: 74.

Edozein kazetarik eta idazlek bezala, neuk ere izan ditut nire iritziak direla eta makurraldiak. Batzuk, mindu nautenak, eta hauetako bat, don Manuel Irujorekin topo eginaz, hain xuxen; neuk gizon handi hau maite nuen neurri berean egin zidan min neuk Caracasetik *Alderdi* aldizkarira (urria-azaroa 1964) bidali nuen: "Euskadi: ¿a dónde vas?" artikuluari eman zion titulo bereko erantzunak.

Nik gauza bat esan nahi izan nuen, eta hark arrazoin handizko beste alderdi batetik heldu zion gaiari.

Askotan gertatzen dena.

Neuk esan nahi nuena zera da: Gure herri osoan euskararen hazia zabaldu eta hazi horren fruituak emateko gai izango litzateken egoera politiko baten lorpen osoa nahiago nuela, *Euskadi independiente* besterik ez den batena baino. Zergatik? Badakitelako euskararen garaipen honek beraz exigitzen duela politikazkoa!

Gaur oraindik, 24 urte gero, kezkatuak gauden euskaldun eta abertzale guztiok badakigu, gure herria euskalduntzeko beharrezko dituen kondizio politikoak zeintzuk diren euskararen diglosiarik gabeko nagusitasuna, Euskal Herria egitazkoa izatea, eskola eta Unibertsitatea, administrazioa, dena euskalduna, lortzeko. Neuk ez dut, Irujo jaunak ulertu zuan bezala, politikako bidea gaitzesten, baizik eta, aitzitik, euskararen paradiso honek berez politika bidea guztiak gaintituak daudela suposatzen. Bestalde, ordea, politika bidearen jo-mugak onak iruditzen bazaizkit ere, badakit, era orain arteko probak lekuko, gehienez ere irlandera gabeko Irlanda antzeko lorpena izango genukela:

Hau zen, funtsean, neuk esan nahi nuena, noski.

Gaurko euskararen egoera garai hartako baino hobea bada ere, nahiko kezkatuak gauden "Bateginik" osatzen dugun alderdietakoak garen eta ez diren guztiak; egindako ez da gutxi baina ez da aski; horrexegatik ari gara ahal dugun neurrian mintzaira eta idatzitako euskara bultza nahian, lehen mailako eskolatik hasi eta euskaldunen alfabetatzeetik pasa eta beharrezko dugun egunkaria eta dugun liburugintza polita, dena bultza nahian; oraindik asko baino gehiago falta baitzaigu!

Egia esan, Independentzia eta euskara, biak nahi ditut, zati ezinak direlako.

Neu politikaren jokabide demokratikoaren bidetik ibili naiz beti, aspaldidanik, baina beti euskararen jomuga galdu gabe; honek bakarrik emango baitigu politikoki helburu hori lortzeko ibili beharko ditugun aldats, eta gainbeherak eusteko kuraia eta kementa.

Ez ginen neuk miresten nuen don Manuel handia eta ni, koxkorra, ongi ulertu garai hartan; baina ordurarte eta geroztik beti konpondu izan ginen bezala. Laster ulertu nuen neuk bere puntua, eta hark ere bai nirea.

Maiz gertatzen ez bada ere.